



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Ikasleen parte-hartzetik, Proiektuen Bidezko

Metodologiara: ikastetxe baten azterketa

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Otegi Urreaga Irati

ZUZENDARIA: Basasoro Ciganda Maitane

2020/2021 ikasturtea

Laburpena

Gaur egun indarrean dagoen hezkuntza sistemak asko dauka aldatzeko ikasleen parte-hartzeari begira, eta horregatik, beharrezkoa da aldaketa batzuk ematea non ikasleak haien ikaskuntzaren protagonista bilakatzen diren. Lan honetan Proiektuen Bidezko Metodologia aztertu da ikasleen parte-hartzea bermatzeko eredu gisa.

Metodologia hau sakontasunez ezagutzeko eta errealitatean nola gauzatzen den jasotzeko asmoz, proiektuak lan egiten zuen ikastetxe batean elkarrizketa bat burutu da; Eraitzen bitartez, proiektu bat ikasgelan zer den definitu da eta esparru errealean praktikara nola eraman den erakutsi da. Azterketa honek aukera zabalduko du gerora interesatuta dauden ikastetxeetan garatu ahal izateko.

Hitz gakoak:

Hezkuntza sistema, motibazioa, metodologia aktiboak, parte-hartzea, ikasleen interesak.

Resumen

El sistema educativo actualmente vigente tiene mucho que cambiar de cara a la participación del alumnado, y por ello, es necesario dar algunos cambios en los que el alumnado se convierta en protagonista de su aprendizaje. En este trabajo se analiza la Metodología a través de Proyectos como modelo para garantizar la participación del alumnado.

Con el objetivo de conocer en profundidad esta metodología y conocer cómo se materializa en la realidad, se ha llevado a cabo una entrevista en un centro que trabajaba por proyectos; a través de los Resultados se ha definido qué es un proyecto en el aula y se ha mostrado cómo se ha llevado a la práctica en los ámbitos reales. Este estudio abrirá la posibilidad de que posteriormente se pueda desarrollar en los centros que estén interesados.

Palabras clave:

Sistema educativo, motivación, metodologías activas, participación, intereses del alumnado.

Abstract

The educational system currently in force, in terms of student participation, still has much to change and therefore, it is necessary to make some changes in which students become the protagonists of their learning. For this reason, in this work the Methodology through Projects has been analyzed so as to guarantee the participation of the students.

In order to get to know this methodology in depth and to learn how it is implemented in reality, an interview was carried out in a school that worked on the project; Through the results, it has been defined what a project is in the classroom and how it has been put into practice in real settings. This study will open up opportunities for later development in interested schools.

Key words:

Education system, motivation, active methodologies, participation, student interests.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	4
3.MARKO TEORIKOA	5
3.1 Parte-hartzea	5
3.2 Eredu tradizionalekin hausteko eta hezkuntza eraldatzeko beharra	7
3.3 Proiektuen Bidezko Metodologia	9
3.4 Hezkuntza berrikuntza teoritik praktikara eramateko zailtasunak	11
4.HELBURUAK:	13
Helburu orokorra:	13
Azpi helburuak:	13
5. METODOLOGIA	13
6.EMAITZAK	14
6.1 Proiektuen Bidezko Metodologiaren aplikazioa eta proiektuaren urratsak	14
6.2 Ikasleen parte-hartzea	16
6.3 Oztopo eta zailtasunak	17
6. 4 Abantailak	18
7. ONDORIOAK	18
8.MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	21
9.ERREFERENTZIAK	22
10.ERANSKINAK	27
1.Eranskina: Elkarrizketarako galderak	27
2.Eranskina: Elkarrizketak egiteko baimen dokumentua	28

1. SARRERA

Gaur egun, gizartean aldaketa ugari ematen ari diren arren, zoritxarrez oraindik ere hezkuntzan aldaketaren behar handia dago. Hala ere, oraindik gutxi diren arren, geroz eta ikastetxe gehiagotan berrikuntzaren behar honi erantzunez, eta ikasleei behar duten protagonismoa zein parte-hartzeko aukera eman nahian, Proiektuen Bidezko Metodologia erabiltzen hasi dira. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honetan, metodologia hau erabiltzen duen Bizkaiako ikastetxe bat ezagutzea da helburua. Horretarako, bertako irakasleekin elkarrizketa bat egin, metodologia honi buruz jakintza gehiago edukitzeko eta baita ere ikusgarritasun gehiago emateko etorkizunera begira. Elkarrizketa honen bitartez, Proiektuen Bidezko Metodologian, teoritik praktikara egon daitezken aldeak ikusteko asmoz.

Honekin lotuta, pentsatzen dut lan honi esker, hezkuntzan ekarpen txiki bat egin daitekeela lan egiteko modu berritzaile honen berri izateko pertsona zein ikastetxe gehiagok eta haien irakasteko modua ere ahal den heinean aldatzeko ezagupenak izateko.

Hori horrela izanik, marko teorikoan ikasleen parte-hartzea eta Proiektuen bidezko Metodologia plazaratuko dira autore desberdinen arabera, lan hau egitearen helburuak izendatuko dira; behin elkarrizketa eginda, honen emaitzak plazaratu eta honekin ondorio batzuk aterako dira eta amaitzeko muga eta etorkizun baterako hobekuntza proposamenak argitara emango dira.

2. JUSTIFIKAZIOA

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ez da inolaz ere metodologia berri bat, baina horrek ez du esan nahi ikastetxeetan ezaguna denik eta erabiltzen denik. Ikasleen interesetan oinarritzen den metodologia da, haiek haien ikaskuntza prozesuaren protagonista bihurtuz eta beraien parte-hartzea bermatuz; baita ikasitakoa errealitatearekin konektatuz ere.

Oraindik ere indarrean dagoen hezkuntza sisteman, hezkuntza tradizionala da erabiliena. Hau erabiltzearen arrazoietako bat, aplikatzeko erraza dela izan daiteke, eta irakasleek formakuntza handia izan dutela metodo honen inguruan. Baina honek ez du esan nahi ikaslearen beharrentzat eredu hoberena denik, eredu hau ikasleak edukiak memorizatzen eta azterketetan proiektatzen mugatzen baita.

Hori dela eta, hezkuntza berrikuntzarako beharra agerian geratu da. Pertsonalki nire ikaskuntza ibilbide osoan bizi izandako esperientziagatik, eredu tradizionala sustatu da eta tarteka proiekturen bat egiten bagenuen oso azalean geratzen zen. Beraz, ikasleen parte-hartzea ez zen batere sustatzen; eta urte hauetan zehar ere praktikan egon naizen ikastetxeetan ikusi dudana errealitatea oso antzekoa izan da. Hau ikusirik, ikasleen protagonismoa behar beharrezkoa dela pentsatzen dudana aldetik, eredu honi ikusgarritasuna eman nahiko nioke lan honen bidez.

Horregatik lan honetan, metodo hau erabiltzearen onurak plazaratu nahi ditut ikastetxe bakoitzean hausnarketa bat egiteko asmoz, gaur egun indarrean jarraitzen duen ikaskuntza benetan onuragarria den ala ez ikusteko.

3.MARKO TEORIKOA

3.1 Parte-hartzea

Parte-hartzea herritarren oinarrizko eskubidea da. Baina haurrak herritartzat hartzen al ditugu? Egia esan, haurrak ez dira eskubide horren subjektutzat hartu 1989an Nazio Batuek aldarrikatutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenera arte (Trilla eta Novella, 2001).

Parte-hartzeak, pertsona bat baino gehiago biltzen dituen erakunde baten parte bihurtzea esan nahi du. Baina baita norbaitekin zerbait "partekatzea" ere, edo, gutxienez, beste batzuei albisteren bat jakinaraztea. Beraz, parte-hartzea beti da ekintza soziala: inork ezin du modu eskusiboan, pribatuan, bere buruarentzat parte hartu (Merino, 1997).

Trilla eta Novellaren (2001) hitzetan, parte-hartzeak esan nahi du bertan egotea, erabakiak hartzea, zerbaiten berri izatea, iritzia ematea, kudeatzea edo exekutzea; apuntatuta egotetik, kide izatera, gorputz eta arimako zerbaitetan inplikatzera. Parte-hartzeko modu, maila eta mota asko daude. Beraz, bereizketak egin behar dira parte-hartzeari dagokionez. Motak, mailak eta graduak bereiztea hain zuzen ere.

Hori horrela izanik, Trilla eta Novellak (2001), parte-hartze motak bereizteko lau maila proposatu zituzten:

Gradu Amaierako Lana.

- Lehen mailan, parte-hartze sinplea legoke; prozesu edo jarduera batean ikusle edo exekutatzaile gisa parte-hartzean datza. Jarraibideak jarraitzea edo estimuluei erantzutea hain zuzen ere.
- Bigarren mailan, kontsultarako parte-hartzea kokatzen da. Bertan, exekutatzaileei dagozkien gaiei buruzko iritzia eskatzen zaie. Parte-hartze mota honen barruan ere, gradu desberdinak daude, baina oinarrizkoena hartzaileen iritzia eskatzea izan daiteke, men egiteko konpromiso seriorik gabe: inkestak edo balorazio-galdetegiak, adibidez.
- Jarraian, parte-hartze proiektatzailea agertzen da. Subjektua ez da erabiltzaile soila, kanpotik iritzia ematea baino zerbait gehiago egiten du: agente bihurtzen da. Funtsezkoena da subjektuek proiektua propietzat hartzea eta proiektuan barrutik esku hartu ahal izatea.
- Azkenik, metapartaidetza legoke. Subjektuek espazio berriak eta parte-hartzeko mekanismoak eskatzen, edo sortzen dituzte. Gizabanako edo kolektibo batek bere partaidetza-eskubideak aitortzen ez direla uste duenean agertzen da.

Hau ikusirik, esan dezakegu parte-hartzea ulertzeko modu ezberdinak egon daitezkeela, parte-hartzeko maila ere kontuan izanik. Ikuspegi ezberdinen arabera parte hartze kontsultibo batetik hasiz metapartaidetzaraino, horrela haurrak bere ekintzaren protagonista bihurtuz.

Ikasleek eskolan duten parte-hartzea zehazteko, bi dimentsio bereizi behar dira. Alde batetik, parte-hartzearen zentzua zein den pentsatu behar dugu. Zertarako parte-hartzen dugu? Bestetik, ulertu behar da zein diren parte-hartzeko mekanismo zehatzak, nola parte-hartzen da? (García-Perez eta Montero, 2017).

Parte-hartzea zerbaiten parte izatea eta bertan esku-hartzea da (Echeita, 2006; Guerra, 2007). Horren arabera, ikasleek protagonista izan beharko lukete, ikastetxeko bizitzaren eraikuntzaren eta zentro barnean beren bizitzaren eraikuntzan.

Hurrek zerbaiti buruz hitz egiteko duten gaitasuna edo maila, iritzi desberdin asko biltzen dituen gaia da. Askok esango dute hurren parte-hartzea nozio inozoa dela, hurrek ez baitute helduek erabakitzeko duten ahalmena (Hart, 1993). Ikasle gehienek uste dute gutxi edo batere ez dela beren ikastetxeen kudeaketan parte-hartzeko ematen zaien aukera, eta,

Gradu Amaierako Lana.

are okerragoa dena, horietako askori horrek ez die kezkatzen. Beraz, parte-hartzea oso txikia da edo ez da existitzen, eta urteak igaro ahala, "Saiatzea merezi ez duen iritzia" sendotzen ari da (Peña Calvo, 1989).

Bestalde, bat egiten dugu Gaitanen (1998) hitzekin. Haren arabera, parte-hartzeak esan nahi du haurrak eskubideen kolektibo sozial gisa ikusten direla; hala, helburua metapartaidetza bilatzea beharko luke izan eta horrek estrategiak diseinatzea eta rolak birdefinitzea dakar gizartearen osagai guztietan eta, zehazki, haurrek eta helduek eskola-testuinguruan betetzen dituzten roletan.

Azken finean, kontuan eduki behar da parte-hartzea ezin dela behartu, ezta inposatu ere; pertsona bakoitzak bere erritmoak eta parte-hartzeko moduak hartuko ditu. Hala ere, eskola bakoitzak aukera eman behar du guztiek parte-hartzeko eta parte-hartzen ikasteko (García-Perez eta Montero, 2017). Era berean, haurrek parte-hartu dezaten eta guztien arteko eta norabide guztietako komunikazioa errazteko guneak sortu behar dira, hezteko helburu batekin. Dauden egiturak aprobetxatuz, taldeak sortuz, proiektuak garatuz edota ordezkariak bultzatuz, inplikaturako alderdi guztien sare bat osatzeko (Herranz, 2014).

3.2 Eredu tradizionalekin hausteko eta hezkuntza eraldatzeko beharra

Aurreko atalean aipatu ditugun gune parte-hartzaile horiek sortzeko, behar beharrezkoa da oraindik ere indarrean dagoen eredu tradizionalarekin haustea eta berrikuntza prozesuak martxan jartzea

Zalantzarik gabe, gizartearen etengabe eraldatzen ari da; baina eskolaren funtzionamendua, aldiz, ez. Izan ere, eskolak gizarte industrial baterako irakasten jarraitzen baitu, horrela informazioaren gizarteak dituen eskaerekin erlazio gutxi edo batere komunean ez izanik. (Flecha, 2009).

Aurrerapen teknologikoek eta globalizazioak, hezkuntzak ikaskuntza konstruktibista eta hezkuntzaren lau zutabeak izatea eskatzen dute; izaten, elkarrekin bizitzen, egiten eta ezagutzen ikastea; halaber, irakasle eta ikasleak hezkuntza-berrikuntzen bidez munduari aurre egiteko gai diren pertsona liderrak izatera eramango lituzke (Lara, 2015).

Gradu Amaierako Lana.

Hori dela eta Escamillaren (2008) hitzetan, egungo gizarteak herritar trebeak eskatzen ditu bere esperientziaren gainean sortzeko, eta horrek atzean uzten du bizitzan aplikazio praktikorik ez duen ezagutza akademikoaren metaketa.

Irakaskuntza-jardunaren berrikuntzaren gaia garrantzi handikoa da gaur egun; izan ere, irakaskuntzako estrategien bidez praktika pedagogikoaren barruan berrikuntzak egitean, ikaslek edukiak azkar bereganatu eta ikaskuntza esanguratsua lortuko du, non gogoeta egiten eta kritikoa eta analitikoa izaten jakingo duen, gaitasunen arabera ikuspegiaren arabera. Era berean, egungo gertakariak gaiekin lotu ahal izango ditu, zeharkakotasun osoa lortuz (Lara, 2015).

Irakaskuntza tradizionalak masifikazio-testuinguru batean bakarrik du zentzua, baina ez da egokia taldean lan egiten duten profesionalak prestatzeko, ez baitu aukerarik ematen erabakiak edo erantzukizunak hartzeko, ez du sustatzen irudimenaren garapena, eta ez die ikasleei behar bezala hitz egiten uzten (Reverte, et al. , 2007)

Horregatik, Delors-ek (1996) dioen moduan, eskola jada ez dago ezagutzak transmititzeko, baizik eta eskola-komunitatea osatzen duten guztien artean eraikitzeko. Hori dela eta, eskolak eta, bereziki, bertako irakasleek rol aldaketa bat jasan dute ezagutzaren eraikuntzaren eta informazioaren transmisioaren arloan; izan ere, beste bitarteko batzuk ari dira eginkizun hori beren gain hartzen hezkuntza-erakundearen hormetatik kanpo. Ikuspegi horretatik, ez da harrizkoa irakasleak elkarriketaren bideratzailearen papera edukitzea, ikaskuntzaren gidari izatea eta ezagutza eraikitzeko bitartekaria izatea, horrela eraldaketa bultzatzen duen intelektual gisa (Giroux, 2001).

Ilido honetatik, gaur egungo hezkuntza berrikuntzaren premiari erantzun nahian, eredu tradizionalarekin hausteko eta aipatutako balore eta ideiak sustatzeko, berrikuntza proiektu ezberdinak martxan jartzen ari dira pixkanaka. Horien artean, Proiektuen Bidezko Metodologia daukagu, irakaslearen gidari rola eta ikasleen parte hartzea eta inplikazioa sustatzeko tresna egokia izanik.

3.3 Proiektuen Bidezko Metodologia

Aurreko atalean aipatutakoaren harira, azken urteetan zehar, hezkuntza munduak zenbait aldaketa jasan izan ditu. Hori horrela, oraindik ere ikastetxe gutxitan den arren, metodologia berritzaileak ematen hasi dira. Honen adibide moduan, Proiektuen Bidezko Metodologia daukagu, ikasleen parte-hartzea bermatzeko baliabide esanguratsua izanik.

Eskola berritzeko behar horren ondorioz, Kilpatrickek Proiektuen Bidezko Metodologiaren oinarriak sortzea ekarri zuen XX.mendearen hasieran. Hau da metodologia honen helburua: ikasleak bere errealitatearekin loturik dagoenetik abiatuz ikasten du. Hori dela eta, hezkuntzaren filosofia esperimentalaren alde agertzen da; filosofia honetan, ezagutza esperientziaren bidez bereganatzen da (Kilpatrick, 1967,72. or.).

Proiektuen Bidezko Metodologiaren ikuspegia konpetentzien garapenean oinarritzen da, eta haren oinarrizko printzipioa da ikasleak gai direla beren ezagutza eraikitzeke errealitatearekiko interakzioaren bidez, ikasleen, irakasleen, familiaren eta ingurunearen arteko harremana nabarmenduz (Balcells, 2014; Bell, et al., 201 ; Wilhelm eta Wilhelm, 2010).

Hori horrela izanik, metodologia honen ezaugarri esanguratsuenak hauek dira: esperientzia-ikaskuntza, begirada fenomeno baten osotasunera bideratzea, lankidetzat-taldeetan lan egitea, funtsezko gaitasunak garatzea, eskolako ikaskuntzaren eta errealitatearen arteko lotura eta ezagutza eraikitzeke lankidetzarako aukera (Curtis, 2002; Ferrer eta Algás, 2007)

Proiektuetan antolatutako lanak aukera ematen du teoria eta praktika integratzeko; adimen-trebetasunak bultzatzeko, buruz ikasteko gaitasuna gaindituz; norberaren eta taldearen erantzukizuna sustatzeko, helburu propioak ezartzean; eta pentsamendu autokritikoa eta ebaluatzailea sustatzeko. Gainera, elkarlaneko ikaskuntza gizarte-ekintza bat da, non elkarriketa nagusi izan behar den ezagutza eta hausnarketa eraikitzeke, errealitatea zalantzan jartzeko (García-Valcárcel, 2009).

Aurrekoarekin lotuz, proiektuek automotibazioa sustatzen dute, ikasleen interesekin erlazionatzen diren heinean, eta sormena hedatzea ahalbidetzen dute. Metodologia honen bidez, ikasleek beren paperarekin bat egiten dutela adierazten dute, lanaren benetako

Gradu Amaierako Lana.

erronkak eta arazoak onartzen dituzte, eta talde-jarduerak egiten dituzte, non denon parte hartzea beharrezkoa eta funtsezkoa den guztientzat (Tobon, 2006).

Tobonen (2006) hitzetan, proiektuetan ikasleekin arazo bat eraikitzen da, ebazteko estrategiak diseinatzen dira, gauzatu egiten da eta baloratu ere, talde- lana eta beste pertsona batzuen parte-hartzea bilatuz (familia, irakasleak, enpresak, gobernu kanpoko erakundeak, talde informalak eta komunitateko beste kide batzuk esaterako), Hezkuntza Proiektu Instituzionalean definitutako konpetentzia-multzo jakin bat prestatzea eta/edo finkatzea kontuan hartuz.

Proiektuak egitean, hiru etapa identifika daitezke: plangintza, garapena eta emaitzen komunikazioa (Brooks-Young, 2005; Sep, 2006). Lehenengoan, mundu errealeko arazo bat identifikatzen da, arazoari buruzko galderak planteatzen dira eta beharrezko baliabideak zehazten dira. Garapeneko etapan, gaiari buruz ikertzen da, irtenbideak formulatzen dira eta arazoaren konponbidearekin lotutako produktu bat sortzen da, ikerketatik eratorria. Emaitzak jakinarazteak berekin dakar produktuaren aurkezpena. Ikerketa-prozesu osoan, beharrezkoa izango da planteatutako helburuak betetzea.

Bestalde, metodologia honi ahalik eta etekin handiena ateratzeko, irakasleek ikasteko giroa sortu behar dute, espazioak aldatuz, informazioa eskuratuz, prozesua modelatuz eta gidatuz. Gainera, irakasleek honako ekintza hauek egin behar dituzte: prozesu metakognitiboak erabiltzera animatzea, taldeko eta banakako ahaleginak indartzea, arazoak diagnostikatzea, irtenbideak eskaintzea, atzeraelikadura ematea eta emaitzak ebaluatzea (Rodríguez et al., 2010).

Hainbat azterlan zientifikok, proiektu lan egiteak onura handiak ekar ditzakela erakutsi dute. Willard eta Duffrinen (2003) arabera, metodologia honek ikaskuntzarekiko gogobetetasuna hobetzen du eta ikasleak hobeto prestatzen ditu beren lan-etorkizunean aurkituko dituzten benetako egoerei aurre egiteko. Gainera, Martinezen, Herreroren, Gonzalezen eta Domínguezen (2007) hitzetan, proiektu lan egiten duten ikasleak taldean lan egiteko beren gaitasuna hobetzen dute, aurkezpenak egiterakoan ahalegin, interes eta esfortzu handiagoa jartzen dute, estres gutxiago dute azterketa garaian, irakasgaia atseginagoa eta interesgarriagoa egiten zaie eta bai irakaslearekin zein gainerako ikasleekin harremana hobetzen dute.

Gradu Amaierako Lana.

Metodologia honek, ezagutza irakas arloka banatzea kritikatzeko du, horrela ikasleak ez duelako irakasten diotenaren baliagarritasuna eta egokitasuna ikusten ezta sentitzen ere, bere interesak ez direlako kontuan hartzen (Kilpatrick, 1967). Beraz, honi konponbidea emateko, beste modu bateko eskola- programa proposatzen da, zeinetan arloak ikasleen beharren arabera antolatzen diren (Kilpatrick, et al . ,1967).

Azken batean, hezkuntzaren kualifikaziorako alternatiba bat eskaintzen da, gizartean egokitasunez jarduteko gaitasunak dituzten pertsonak prestatzeko estrategia garrantzitsuenetako bat baita, teoria praktikarekin lotzen baitu ikasleen interesen esparruan. (Tobon, 2006). Bestalde, funtsezko gaitasunen garapena bultzatzen du, benetako ikaskuntza aktiboa, kooperatiboa, ikasten duenarengan zentratua eta ikaskuntza independente eta motibagarriarekin lotua eskaintzen baitu (Karin eta Viani, 2001).

Hala ere, metodologia honek, gainontzeko hezkuntzako metodologia guztien antzera, badiu bere argi ilunak eta arazoetako bat, ohiko hezkuntza planteatuta dagoen modua ikusiz, bertan txertatzeko zailtasunak dira.

3.4 Hezkuntza berrikuntza teoriatik praktikara eramateko zailtasunak

Hezkuntza sistema aldatzea, denbora handia eskatzen duen prozesua da. Horregatik, aldaketak egiten hasi baino lehen, gaur egungo gizartearen beharrak eta arazoak ondo ezagutu behar dira, sistema eraldatzean horiei erantzuna emateko gai izateko (Olalde, 2013).

Hezkuntza berrikuntzak planteatzerako orduan dagoen beste arazo nabarmenetako bat, irakasleen formakuntza da, oso gutxi jaso dutelako honen inguruko formakuntza egokia. Metodo hau aplikatu ahal izateko, beharrezkoa da etengabeko formakuntza izatea bai eta ikasleengandik ikasteko prest egotea ere eta honekin batera botere harremanak aldatzea, ikasleei hitza emanez.

Marx, Blumenfeld, Krajcik eta Solowayk (1997), egindako azterketak erakusten zuen metodologia hau aplikatzen duten irakasleek zailtasunak dituztela honako alderdi hauetan: denbora, gelaren erabilera, kontrola, ikasleen ikaskuntzarako laguntza, teknologiaren erabilera eta ebaluazioa. Denborari dagokionez, proiektuek normalean programatzen dena baino denbora gehiago hartzen dutela azaldu zen. Gela maneiatzea da proiektuen bidezko

Gradu Amaierako Lana.

metodologiaren arazo ohikoenetako bat; izan ere, irakasleek oreka bilatu behar dute ikasleei beren kabuz lan egiten uztearen eta nolabaiteko ordena mantentzearen artean.

Beste arazo ohikoenetariko bat, ikasgaietan landu beharreko gai zerrenda da. Askotan badirudi irakaslearen lana, funtsean, irakasgaiaren gai-zerrenda betetzea dela (adibidez, arbelean azalpenak emanez), eta azterketak jarri eta zuzentzea, ikasleek gai-zerrenda hori bereganatu dutela egiaztatzeko. Testuinguru horretan, irakasleek maiz argudiatzen dute gai-zerrendak ez diela "denborarik uzten" beste jarduera mota batzuk sartzeko, adibidez, proiektuen bidezko metodologiako jarduerak (Valero- García, 2005).

Gainera, proiektu bat proposatzerako orduan, ohikoa da arlo batek proiektu baten motor gisa jardutea: adibidez, matematikaren ezagutza Noria bat eraikitzean (Otsoa, 2013); hala ere, arloen arteko banaketa klasikoa ez betikotzeko helburuarekin agian beharrezkoa litzateke curriculum-arlo guztiek presentzia izan dezaten bideak aztertzea, betiere presentzia hori behartua ez bada.. Aukera horretan, irakasleek, gidari edo bitartekari gisa duten zereginaren barruan, aukera egokiena aztertu behar dute.

Proiektuen bidezko metodologian ere, edozein talde lanen antzera, ikasle bakoitzak rol desberdina hartzen du: lidergoa, sormena duena edota pasiboa adibidez. Lankidetzan aritzean, gerta daiteke taldekide guztiek ekarpen bera egitea, deskonpentsazioak egotea edo lankidetzan desagertzea. Hirugarren bide horretan, ikaslerik distiratsuenak lotsatiena eklipsatzen du, irakaskuntza tradizionalen gertatzen den bezala. Horregatik, irakasleek egoera konplexu horiek bideratu behar dituzte, pertsona guztiek hitza izan dezaten taldearen barruan. Horretarako, beharrezkoa da haurra ikuspegi pedagogiko batetik ikustea (Van Manen, 2004).

Aurki daitezkeen zailtasunak ikusirik, beharrezkoa da metodologia hau erabiltzen duten eskoletara hurbiltzea, metodo hau praktikan nola jartzen duten ikusteko eta topatu dituzten zailtasunak nola gainditzen dituzten aztertzeko. Horregatik, jarraian proiektuen bidezko metodologia erabiltzen duen ikastetxe batean egindako elkarrizketa plazaratuko dut, metodologia honi buruz sortu zaizkidan galdera guztiei edo gehienei erantzuteko asmoz eta haien irakasteko modura ahalik eta gehien hurbiltzeko asmoz, honek aplikazio eremura gerturatzeko aukera emango digulako ikastetxeetako errealitatea hobeto ezagutzeko bitartekoa izanik.

4.HELBURUAK:

Nire helburuak betetzeko asmoz, Bizkaiako ikastetxe batera joan naiz elkarrizketa bat egiteko intentzioarekin, bertako irakasleak metodologia honi buruz ditudan zalantza zein galderak argitzeko eta metodologia hau itzalean egotetik behar duen ikusgarritasuna emateko asmoz.

Helburu orokorra:

Hau guztia ikusirik, lan honetarako nire helburu nagusia, ikasleen parte-hartzea bermatzeko asmoz, Proiektuen Bidezko Metodologia zabaltzea eta honi ikusgarritasuna ematea izango litzateke, ikastetxeek honi buruzko informazio gehiago izan dezaten gerora aldaketa bat eman nahi ezker.

Azpi helburuak:

- Proiektuen Bidezko Metodologia aurrera eramaten duen ikastetxe batean aldaketarako zein urrats eman dituzten biltzea.
- Ikastetxeetan Proiektuen bidezko metodologia nola ulertzen duten ikustea.
- Teoriatik praktikara egon daitezkeen aldeak ezagutzea.
- Metodologia honek izan ditzakeen onurak plazaratzea.
- Prozesuan zehar zein oztopo topatu dituzten identifikatu eta horiei aurrera nola egin dieten jakitea.

5. METODOLOGIA

Aipatutako helburu hauek betetzeko, Bizkaian kokatzen den ikastetxe batera hurbildu gara. Azterketa kualitatiboa oinarritzat hartuta, elkarrizketa erdi egituratuak burutu ditut ikastetxeko ikasketa buruarekin eta beste irakasle batekin. Elkarrizketa hauek egiteko, aurretik prestatutako galdetegi bat oinarri bezala hartu dut (*1. eranskina*), kategoria desberdinetan banatu dena.

Ikerketa edo elkarrizketa honekin hasi baino lehen, gaiari buruzko oinarri teoriko bat bilatu da. Jarraian, Proiektuen Bidezko Metodologia erabiliz lan egiten duten eskolak bilatzen hasi

eta haietako batekin harremanetan jarri nintzen, haiengana elkarrizketa bat egitera gerturatzeko asmoz; behin ikastetxea zehazturik izanda, elkarrizketarako gidoia pentsatu zen. Eguna iritsitakoan ikastetxera heldu eta elkarrizketa audioz grabatu zen, haien baimena edukirik. Honen helburua, ahalik eta informazio gehien jasotzea izanik. Jarraian grabazioak transkribatu ziren eta hauen bidez eta jasotako datuen bidez ondorioak atera ziren, teoriatik praktikara dauden aldeak ikusteko asmoz.

6.EMAITZAK

Ikastetxe honetan egindako elkarrizketa aztertu ostean, ondorengo emaitzak lortu dira:

6.1 Proiektuen Bidezko Metodologiaren aplikazioa eta proiektuaren urratsak

Proiektuak lan egiteari buruz ulertzen dutenari dagokionez, ikastetxeko ikasketa buruak argi utzi zuen haientzat argi eta garbi umeei protagonismoa hartzeko tresna gisa ulertzen zutela. Ikastetxe horretan batez ere ulermena eta adierazmena lantzen saiatzen dira eta horrekin lotuta, errealitatearekin eta herriarekin proiektatzen egingo den proiektua.

“Umeen ikasketa esanguratsua izateko, gakoa ez da buruz ikastea, edukiak barneratzea baizik, buruz ikastea edukiak ez badituzte barneratuta ez duelako ezertarako balio, handik astebetara dena ahaztuko zaie, umeak ikaskuntzan protagonistak badira, demostratuta dago hobeto geratzen dela ikaskuntza hori”. (E_ir_01).

Lau urte soilik daramatzate metodologia honekin, haien 4. urtea da zuzendaritza taldean eta ikasketa buruak aipatzen du taldean sartutakoan metodologia aldatzearen beharra antzeman zuela, ikasleak protagonista bihurtzeko asmoz. Hori dela eta, formakuntza jaso zuen klaustro osoak; zentro honetan, Haur Hezkuntzatik DBH-ra arte egiten baitute proiektuak lan.

Proiektu bat bukatu eta hurrengoa hasi arte, hainbat egun igarotzen dira; hori dela eta, ikasleek ez dakite zehazki ze egunetan hasiko den proiektua, bitartean ikasgaiak dituzte eta ondoren hauek bertan behera geratzen dira. Proiektua hasten den eguna eta ordua beti berdina da kurtso guztietan, bost edo sei hilabete inguruko proiektuak izaten dira eta haiek “desafio inicial” izeneko aspektu bat lantzen dute hasteko. Hala ere, aipatzekoa da esan bezala, ikasleek ez dakitela noiz hasiko den proiektua; hori dela eta, hasiko den egunean

Gradu Amaierako Lana.

zerbait esanguratsua egiten ahalegintzen dira haien motibazioa piztu eta proiektu horretara lotzeko asmoz.

Mailaren arabera, proiektu bakoitza zerbaitetan desberdintzen da; adibide moduan, haiek eskolara joan daitezke eta lehen egunean ezer ere jakin gabe anbulategira joaten dira. Horregatik, proiektu bakoitza prestatzen duen irakaslea motibazioa pizteko jardueraren bat prestatzen saiatu behar da; hori izango litzateke proiektuaren hasiera.

“Adibidez lehen gizakiak ematen ari dira lehen hezkuntzako lehenengo mailan eta hauek lehenengo egunean datoz eta gela ilun dute, kandelaz beteta, oilaskoa plateretan eta tenedorerik gabe; beraz, dastaketa bat egiten dute eskuekin janez eta haur batzuentzat, lehen gizakiaren giro hori bizitzea nahiko potentea da. Hori lehen fasea da; hau da, motibazioa piztea”. (E_ir_02).

Proiektuan zehar, taldeka egokitutako gaiari buruzko informazioa bilatzen hasten dira haien kabuz; gaia ulertzeko eta barneratzeko asmoz; betiere, ikasketa esanguratsuari begira. Bestalde, ataza desberdinak betetzen dituzte eta horrekin guztiarekin ikasleen pentsamendua eta motibazioa sustatzen saiatzen dira

“Gero, proiektuan zehar ataza ezberdinak egiten ditugu eta horren helburua da ikasgai bakoitzeko eduki desberdinak barneratzen joatea. Guretzat, proiektuen barruan daukagun gauzarik potenteena, “pentsamendu errutinak” lantzen ditugula da. Lehen esan dizudan bezala, helburuetako bat da pentsamendua lantzea umeengan; orduan, Harvardeko pentsamendu errutinak nola erabili ikasi genuen formakuntzan eta horiek aplikatzen ditugu ikasgai guztietan eta eduki ezberdinetan. Batez ere horren helburua da haurrengan pentsamendua lantzea”. (E_ir_01).

Beste puntu garrantzitsu bat, proiektua nola bukatzen den izan daiteke. Ikastetxean “proiektuaren ospakizuna” deiturikoa aurrera eramaten da. Egun horretan, ikastetxea zabaltu eta gurasoak gerturatzen dira seme-alaben geletara, ikasitakoa sinbolikoki ospatzeko asmoz. Haurrek proiektuan zehar egindakoa azaltzen diete eta amaieran, ume bakoitzak 15 minutu inguruko tarte bat edukitzen du portfolio izeneko txosten bat gurasoei erakusteko. Txosten horretan, ebidentziak deituriko lanak daude, eta haietan ikasgai bakoitzean landutako atazak azaltzen dira.

Gradu Amaierako Lana.

“Egun hori oso garrantzitsua eta hunkigarria da denontzat, gurasoei egindakoa erakustez gain, umea saiatu behar delako portfolioan duen guzti hori berbalizatzen, azkenean hori da garrantzitsuena, umea gai izatea egin dituen gauza desberdinak azaltzen jakiteko eta horrela ikusten da zenbateraino barneratu diren landutako gaiak”. (E_ir_01).

Azkenik, produktu finala aurkezten da. Ikasleak gaiaren arabera zerbait sortzen doaz eta hori da hain zuzen ere, produktu finala izango dena. Antzerki bat, maketa bat, aurkezpen bat... izan daiteke eta hau ere ospakizun horretan erakusten da.

6.2 Ikasleen parte-hartzea

Curriculumarekin bete beharra dago eta hori askotan oztopo bat izan ohi da; beraz, proiektua zeren ingurukoa izango den irakasleek hartutako erabakia izan ohi da, zer eduki landu behar diren ere zehaztu beharra dagoelako. Hori dela eta, batez ere Lehen Hezkuntzan landutako proiektuetan zientziak izan ohi dira proiektuaren oinarria, baina interdisziplinarrak direnez, hizkuntzak, plastika edota beste ikasgaien bat ere sartzen da; ohikoena, 3 edo 4 ikasgai sartzea izan ohi da. Egia da, ez dutela ikasleek aukeratzen proiektua zeren ingurukoa izango den, baina ikasketa buruak dioenez, irakasleak haien erabakietan motibagarriak diren gaiak aukeratzen saiatzen dira, errealitatearekin konektatuz haiek ere egindako proiektuetan gertuago sentitzeko asmoz.

“Adibide moduan, ikusten badugu osasunaren inguruko zerbait interesgarria izan daitekeela, proiektuari hasiera emateko anbulategira joaten gara, medikuren batek zerbait azaltzen digu... elikaduraren inguruan baldin bada jatetxe batera goaz, pintxo pare bat prestatzen dizkigute... Horregatik, saiatzen gara herriko inguru desberdinetara joaten, hauren motibazioa pizteko”. (E_ir_01).

Aurrekoarekin lotuta, taldeak ere beti edo gehienetan irakasleak sortzen ditu, lehen esan bezala curriculumarekin jarraitzeko behar hori dagoelako. Hiru edo lau pertsonak osatzen dituzte taldeak eta helburua ahalik eta homogeneoenak egitea litzateke. Curriculumarekin lotzeko behar horri jarraiki, talde guztietan zailtasunak eduki ditzakeen norbait egon beharko litzatekeelako, taldean lan egiten dakien jendea edota ez dakiena, denak nahastuta, aurretik aipatutako homogeneotasun hori kontuan hartuz, talde guztien ikasketa prozesua ahalik eta hoberen aurrera eramateko asmoz.

Gradu Amaierako Lana.

Ebaluazioari dagokionez, ikasleen parte-hartzea lortu nahian, autoebaluazioa eta koebaluazioa erabiltzen dira ebaluatzeko tresna gisa. Hauen bidez, autoebaluazioaren kasuan, ikasle bakoitzak prozesu horretan zer jarrera eduki dituen, zer zeharkako kompetentzia landu diren, nola barneratu dituen gauzak... eta beste hainbat alderdi ikusi ditzake. Koebaluazioaren kasuan aldiz berdin, baina kasu honetan talde lana baloratuz.

6.3 Oztopo eta zailtasunak

Proiektuen Bidezko Metodologia aplikatzerako unean, argi geratu da irakasle guztien inplikazioa lortzea izan daitekeela gaur egun dagoen arazo larrienetako bat. Azken finean, eredu tradizionala erabiltzera ohituta gaude eta horrela lan egitea aldaketa handia da denontzat. Irakasleak aipatzen zuenez, jendea “en su zona de confort” egotera ohituta dago, horregatik zerbait berria denean eta liburuak kendu edo edukiak beste modu batera lantzea proposatzen zaienean, askori kosta egiten zaie aldaketa hori ematea. Hori dela eta, oztopo hauek gainditzeko eredu tradizional batetik datorren irakasleekin formakuntzak egin ohi dituzte metodologia honetan haien inplikazioa lortzeko asmoz.

“Egia da gu nahiko zentro txikia garela, 44 irakasle inguru gaude klaustroan orduan nahiz eta kasu batzuk eduki ditugun non nahiko reazioak izan diren, orokorrean gure esperientzia nahiko ona izan da. Zentro handiago batzuk ezagutzen ditugu azkenean irakasle sektore handiago batekin kontra daudenak”. (E_ir_02).

Ebaluaketaren inguruan ere zenbait zalantza dituztela argi utzi zuten, ez baitakite nola ebaluatu proiektuan egiten duten guztia. Tresnak eta mekanismoak badituztela adierazi zuten, baina hala ere kosta egiten dela. Azken finean, lehen esan moduan curriculum bat lantzen da eta hor landutako alderdiak ere ebaluatu behar dira, beraz sortzen zaien zalantzetako bat da ea nola sartu daitezkeen kompetentziak proiektuetan. *“Lau urte soilik daramatzagu metodologia honekin, beraz hau aldaketarako bide luze bat da, eta hor jarraitzen dugu oraindik”.* (E_ir_01).

Hala ere, sortu den kezka nagusietako bat, ikasleak batxilergo batera edo unibertsitatera nola iritsiko diren izan da. Hau da, ikasleentzat nahiko aldaketa handia izan daiteke txikiak direnetik proiektuen bidezko metodologia batean lan egitetik metodologia tradizionalera itzultzea batxilergoan hasten direnean. Irakasleek esan zuten moduan, arazoa hezkuntza aldatzeko beharra dagoela da, baina ez dela aldatzen. Ikasketa buruak aipatzen zuen,

Gradu Amaierako Lana.

beraiek aldaketa hau egin dutela ikasleentzat hoberena dela pentsatuz, ikasketa aktiboagoa izanez, protagonistak sentituz... azken finean ikasleengan pentsatuz eginiko aldaketa baita.

“Guk DBHko ikasleak ditugu eta hauek batxilergo batera heldu behar dira eta gero modu tradizional batean lanean hasi beharko dira bertan; horrek adibidez, asko kezkatzen gaitu. Guk metodologia zertxobait aldatu dezakegu, baina selektibitatea hor dago eta horra heltzeko asko ikasi beharko dute, beraz guk metodologia aldatzearen aldeko apostua egiten dugu, baina azken finean azterketara heldu, dena idatzi eta bi asteetara hori dena ahaztearen sistemak hor jarraitzen du. Horregatik pentsatzen dugu aldaketa globalagoa izan beharko litzatekeela, baina hori ez dago gure esku, gobernua ere hor sartu beharko litzatekeelako”. (E_ir_02).

6. 4 Abantailak

Irakasleek azpimarratzen zuten, abantaila buruz hitz egiteko agian goizegi dela. Izan ere, horri erantzutea, lau urteko ibilbidea soilik izanik nahiko zaila egiten dela. Metodologia honen emaitzak, epe luzera ikus daitezkeela nabarmentzen zuten, baina kontuan hartzekoa da haur hezkuntzatik proiektuka hasten diren hurrek, ikaskuntza osoan zehar hainbat abantaila izango dituztela.

“Hala ere, esan dezaket haur hezkuntzatik proiektuka hasi ezker, hemendik urte batzuk barru DBHn daudenean pentsatzeko gaitasunean hobekuntza handia jasoko dutela, hau txikitatik landu ezker taldeka lan egiteko ere gaitasunak edukiko dituzte, eta askoz ere kritikoagoak izango dira bai bere buruekin eta baita ere ingurunearekin. Gainera, uste dugu oso argi dagoela haien ikaskuntzan protagonista izateak ondorio positibo batzuk dituela eta batez ere errealitateaz konektatze horrek edukien barneraketan asko laguntzen du, irakaskuntza praktikara eramanda askoz ere esanguratsuagoa izan daitekeelako” (E_ir_01)

Hala ere, metodologia hau epe ertain edo luzerako prozesu moduan planteatuta dagoela adierazi zuten, beraz emaitza finko batzuk ateratzeko oraindik ere goizegi dela, planteatutako hau oraingo bizi duten prozesua kontuan hartuz ateratako ustea da; horregatik, emaitza errealak hemendik urte batzuetara izango genituzke.

7. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lana.

Marko teorikoan aipatutako hezkuntza berrikuntzaren behar horri erantzun nahian, eta ikasleek behar duten protagonismo zein parte-hartze hori eskaintzeko, Proiektuen Bidezko Metodologia daukagu. Agerian geratu da metodologia honek haurren garapenerako abantaila asko ekar ditzakeela; baina metodologia berritzaile honetan, parte-hartze erreal bat bultzatzen da? zein neurritaraino?

Teorian, arestian aipatu dugu ikasleek protagonista izan beharko luketela ikastetxeko bizitzaren eraikuntzan eta zentro barnean beren bizitzaren eraikuntzan (Echeita, 2006; Guerra, 2007), horregatik lan guzti honetan zehar haurren protagonismoa zein parte-hartzea azpimarratu da Proiektuen Bidezko Metodologian, eta honekin lotuta ikastetxeko ikasketa buruak aipatu digu, hau lortzeko bidea errealitatearekin eta herriarekin konektatzea dela; hala ere, praktikan, oraindik ere hutsune handiak nabari direla antzeman da.

Honekin lotuta, taldeak irakasleek egiten dituztela kontuan hartuz, ikasleek muga dute taldeak sortzerako unean erabakitzeko aukerarik ez baitute izaten; teorian aldiz, ikusi da irakasleek egoera konplexu horiek bideratu beharko litzaketeela pertsona guztien parte hartzea bermatu nahian. Tobonen (2006) hitzetan, Funtsezko gomendioa da taldeak osatuta geratzea, kideen artean osagarritasuna egon dadin konpetentziei eta konpetentzien prestakuntza-mailari dagokienez. Hala ere, irakasleek taldeak egin eta bide errezenetik jo ordez, agian interesgarriagoa izango litzateke hein batean ikasleek ere haien taldekideak aukeratu ahal izatea. Honen bidez, nola lan egiten duten ikusteko, sortu daitezkeen desberdintasunetaz ohartzeko edota arazoei aurre egiteko; azken batean, horrela ere interesgarria izan daitezkeen aniztasuna sortu ahal delako..

Parte-hartzea modu ezberdinetan ikusten den bezala, proiektu bidezko lanak ere norabide anitzak har ditzake. Badaude ereduak non gaiak ikasleek aukeratzen dituzten (Antzuola, 2000) eta beste batzuk non bideratuagoa dagoen. Ikastetxe honen kasuan, ikasketa buruak aipatu duen moduan, proiektuen gaiak irakasleek aukeratzen dituzte, curriculuma betetzeko behar horren ildotik. Hala ere, iruditzen zait errealitatearen baitan erabaki behar dela Proiektuen Bidezko Metodologia nola aplikatu; baina, ikasleen parte-hartze erreal bat nahi baldin badugu, interesgarria izango litzateke haiei geroz eta erabaki gehiago hartzeko espazioak zabaltzea eta urratsak ematen joatea.

Hori dela eta, argi geratu da, proiektuka lan egiten duen ikastetxe honen muga handi bat, curriculuma betetzeko presioa dela; eta hori dela eta, ikasleei zenbait erabaki hartzen uzteko arrazoi nagusia ere curriculuma jarraitzeko behar horri lotua dagoela. Presio hori, muga larria

Gradu Amaierako Lana.

da ikasleen parte hartzeari begira, haurrek izan dezaketen eskubide hori urratua izaten ari delako eta haien askatasuna mugatzen du horrek. Horregatik, pausu bat haratago joateko beharra dago curriculuma modu ireki eta global batean ulertuz agian erabakiak hartzeko espazioak ireki daitezkeelako.

Bestalde, metodologia honetan dagoen beste kezka bat, irakasleen formakuntza litzateke. Irakaslea bere irakasle-taldearekin lankidetzan lan egiten duen subjektu bezala ulertzen badugu, komunikaziora, lankidetzan-lanera, erabakiak hartzera eta baterako proiektuak egitera bideratu behar dugu irakasleen garapen profesionala (Wenger eta Snyder, 2002). Egindako elkarrizketan, oztopo nahiko larri bat bezala definitu zuten formakuntza falta hau; eta azken finean, teorian aipatu bezala badaude azterketak ere erakusten dutenak metodologia hau erabiltzen duten irakasleek, zailtasunak izan ohi dituztela zenbait alderdi kudeatzerako garaian. Agian ez da soilik formakuntza falta bat dagoela, irakasle bakoitzaren gogoek ere zerikusi handia izango lukete, elkarrizketatuek aipatu dutenez ere kasu batzuk egon baitira non irakasleak nahiko errefus izan duten proiektuak lan egiterako garaian. Beraz, Proiektuen Bidezko Metodologiak aurrera egin ahal izateko, irakasleen inplikazioa zein aldaketarako gogoia izatea behar beharrezkoa da. Gainera, erronka hori lortzeko, beharrezkoa da unibertsitateko irakaskuntza hobetzea, unibertsitatean proiektukako lana ezartzean oinarritutako prestakuntza-proposamen baten bidez, eta, ondorioz, unibertsitateko irakasleak metodologia eguneratuetan prestatzea (Mériida et al., 2011).

Teorian ere ikusi dugu, Martinezen, Herreroren, Gonzalezen eta Domínguezen (2007) hitzetan, proiektuak lan egiten duten ikasleak taldean lan egiteko beren gaitasuna hobetzen dutela, aurkezpenak egiterakoan ahalegin, interes eta esfortzu handiagoa jartzen dute, estres gutxiago dute azterketa garaian, irakasgaia atseginagoa eta interesgarriagoa egiten zaie eta bai irakaslearekin zein gainerako ikasleekin harremana hobetzen dute. Honekin lotuta, lanean zehar ere aipatu dugu proiektuak lan egiteak hainbat abantaila izan ditzakeela; hala nola, pentsatzeko gaitasunean hobekuntzak, taldeka lan egiteko gaitasunak, errealitatearekiko kritikoagoak izateak zein edukiak errazago barneratzeak; beraz, abilezia hauekin doazen ikasleak, hezkuntza tradizionalera itzultzen direnean, zein etorkizunera begira, gaitasun hauek gainerako ikasleek baino garatuago izango dituzte. Hori dela eta, metodologia honek abantaila guzti hauek eskaintzen baditu eta ikasle aktibo eta kritikoagoak nahi baditugu, horrelako praktikak bildu eta lau haizetara zabaltzen jarraitu behar dugu.

Hezkuntza berritzeko behar horren ildotik, nire aburuz egon daitekeen arazo nabarmenena horrelako proiektuen zabalpen falta da. Izan ere, ikastetxe batzuetan aldaketarako pausuak

Gradu Amaierako Lana.

ematen saiatzen diren arren, orokorrean hezkuntza sistema ez bada aldatzen, aldaketa horiek oso azalean geratzen dira, oraindik ere informazioa falta handia dago eta zoritxarrez hezkuntza sistema tradizionalak indarrean jarraitzen du; horregatik, oso zaila da horrelako ikastetxeen globalizazioa eta hau hezkuntza berrikuntzaren bidean muga handia izan daiteke. Honekin lotuta, Lehen Hezkuntzako mailetan aldaketak ematen diren arren, ikasleak handitzen doazen heinean hezkuntza tradizional batera itzultzen dira, bai batxilergoan eta gerora unibertsitatean, beraz aurrera pausu guzti horiek nolabait zapuztu egingo dira etorkizunean.

8.MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honetan edukitako muga nagusia denbora falta izan da. Horrela lan egiten duten hainbat ikastetxe ezagutu eta bertako irakasleak elkarrizketatzea gustatuko litzaidake informazioa hain azalean ez geratzeko, ikastetxe desberdinetan egon daitezkeen lan egiteko modu anitzak eta iritzi desberdinak kontrastatzeko amoz eta lan esanguratsuago bat egiteko asmoz; baina, lan honek denbora gehiago eskaintzen zuen eta hori dela eta ez da posible izan. Beraz, esan dezaket denbora muga nahiko handia izan dela lan honetan guztiz sakontzeko oztopoa izan den aldetik.

Lana egiterako orduan izan dudana beste muga handi bat interneten informazio asko izan dudala baina gero nire inguruan eta errealitatean metodologia honen inguruko ezagutza eta erabilpen falta handia dagoela izan da. Hori dela eta, informazio asko izan arren, errealitatearekin lotzea izan da gehien kosta zaidana. Gainera, metodologia hau erabiltzen zuten ikastetxeak topatzea zaila egin zait, nire ingurukoei galdetuz inorrek ez zuelako metodologia honekin lan egiten zuten ikastetxerik ezagutzen eta sarean ere oso ikastetxe gutxi agertu zaizkit; beraz, ondorioetan esan dudana moduan, horrelako proiektuen zabalpen falta muga handia izan daiteke hauei ikusgarritasuna ematerako orduan, ikastetxe gutxi daudelako aldaketa eman dutenak eta eman badute ere nahiko itzalean geratzen direlako hauek.

Hasieran esandakoarekin lotuz, hobekuntza proposamen moduan oso aberasgarria izango litzateke gaur egun proiektuka lan egiten duten hainbat ikastetxe biltzea eta elkarrizketatzea haien artean egon daitezkeen aldeak konparatzeko eta teoriatik praktika errealera ematen diren aldaketak ikusteko. Bestalde, elkarrizketak egiteaz gain, ikastetxeetan bizi den egunerokoa ere behatzea ongi egongo litzateke, elkarrizketak egiteaz gain bizipenetatik ere

Gradu Amaierako Lana.

asko ikasten delako eta hortik teoriatik praktikara ere dauden aldeak sakontasunez ikusteko aukera gehiago egon daitekeelako.

9.ERREFERENTZIAK

- Antzuola Herri Eskola. (2000). Gestión del Currículum y concepciones del alumnado. *Cuadernos de Pedagogía*, 290, 70-73.
- Balcells, M. (2014). El trabajo por proyectos: Una metodología global. *Cuadernos de Pedagogía*, 450, 7-13.
- Borrego, V. A., Otero, V. D. C. H., Flores, M. M., eta González, M. T. R. (2010). Trabajo por proyectos: aprendizaje con sentido. *Revista Iberoamericana de Educación*, 52(5), 3. <https://rieoei.org/historico/deloslectores/3202Morelos.pdf>
- Brooks-Young, Susan (2005). "Project-Based Learning: Technology Makes It Realistic!" *Today's Catholic Teacher*, 38(6), 35-39.
- Delors, J. (1996). La Educación encierra un tesoro: informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el siglo XXI. http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF
- Echeita, G. (2006) *Educación para la inclusión o educación sin exclusiones*. Narcea.
- Escamilla, A. (2008). Las competencias básicas. *Claves y propuestas para su desarrollo en los centros*. Graó
- Flecha, R. (2009). Cambio, inclusión y calidad en las comunidades de aprendizaje. *Cultura y Educación. Revista de teoría, investigación y práctica*, 21(2), 157-170. <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1174/113564009788345835>
- Gaitán, A. (1998). *La participación de los niños y adolescentes en el contexto de la Convención sobre los derechos del niño: visiones y perspectivas. Protagonismo infantil*. Seminario presentado por UNICEF, Bogotá. <https://goo.gl/l4QeLX>
- García-Pérez, D., eta Montero, I. (2017). Propuesta de marco conceptual para la democracia y la participación del alumnado en la escuela. *Revista Brasileira de Educacao*, 22(71), 7.

- García-Valcárcel, A. (2009). *Modelos y estrategias de enseñanza* [Bideokonferentzia]. Modelos y estrategias de enseñanza, de la Maestría en Educación. Monterrey, México.
- Giroux, H. (2001). *Política, cultura y práctica educativa*. Graó.
- Guerra, M. Á. S. (2007). *Arte y parte: desarrollar la democracia en la escuela*. Homo Sapiens.
- Hart, R. (1993). La participación de los niños. De la participación simbólica a la participación auténtica. *Ensayos inocenti*, (4), 5. https://www.researchgate.net/profile/Roger_Hart3/publication/46473553_La_participacion_de_los_ninos_de_la_participacion_simbolica_a_la_participacion_autentica/links/571e6d4208aefa648899a0c5/La-participacion-de-los-ninos-de-la-participacion-simbolica-a-la-participacion-autentica.pdf
- Herranz, P. J. M. (2014). La participación en los centros escolares. Un reto para sus componentes y para la inspección educativa. *Avances en supervisión educativa*, (21), 4. <https://avances.adide.org/index.php/ase/article/view/90/89>
- Karlin, M. eta Viani, N. (2001). *Project based learning*. Medford, OR: Jackson Education Service District.
- Kilpatrick, W H. (1967^a). La teoría pedagógica en que se basa el programa escolar. En KILPATRICK, W. H.; RUGG, H.; WASHBURNE, G. eta BONNER, F. G. (Ed.), *El nuevo programa escolar* (39-72). Editorial Losada.
- Kilpatrick, W H. (1967^b). La filosofía de la educación desde el punto de vista experimentalista. En KILPATRICK, W. H.; BREED, F. S.; HORNE, H. H. eta ADLER, M. J. (Ed), *Filosofía de la Educación* (15-74). Editorial Losada.
- Lara, D. L. S. (2015). Innovación en la práctica docente. *Revista Vinculando*. <http://vinculando.org/educacion/innovacion-practica-docente.html?highlight=no-resul%3AWilson+Torres+-+Filho>

- Majó, F eta Baqueró, M. (2014). *Los proyectos interdisciplinarios: 8 ideas clave*. Editorial Graó.
- Martí, J. A., Heydrich, M., Rojas, M., eta Hernández, A. (2010). Aprendizaje basado en proyectos: una experiencia de innovación docente. *Revista Universidad EAFIT*, 46(158), 11-21. <https://repository.eafit.edu.co/handle/10784/16812>
- Martínez, F, Herrero, L, González, J.M, Domínguez, J.A (2007). *Project based learning experience in industrial electronics and industrial applications design*. Universidad de Valladolid. Escuela Universitaria Politécnica
- Marx, R. W., Blumenfeld, P.C., Krajcik, J. S., eta Soloway, E. (1997). Enacting project-based sciences: Challenges for practices and policy. *Elementary School Journal*, 94, 517-538.
- Mérida, R., Barranco, B., Criado, E., Fernández, N., López, R. M. eta Pérez, I. (2011). Aprender investigando en la escuela y en la universidad. Una experiencia de investigación-acción a partir del Trabajo por Proyectos. *Revista de Investigación en la Escuela*, 73, 65-76.
- Merino, M. (1997). *La participación ciudadana en la democracia*. Instituto Federal Electoral. https://www.ine.mx/wp-content/uploads/2020/02/cuaderno_04.pdf
- Molina Torres, M. P. (2019). El Aprendizaje Basado en Proyectos (ABP) en la formación metodológica del profesorado del Grado de Educación Primaria. *Enseñanza & teaching*, 37 (1) <https://gredos.usal.es/handle/10366/142863>
- Olalde Leoz, M. (2013). *Hezkuntza sistema eztabaidatuz: berrikuntza curricularra eta lan-proiektuen metodologia*. [Gradu Amaierako Lana]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
<https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/7949/HEZKUNTZA%20SISTEMA%20EZTABAIDATUZ.%20EL%20SISTEMA%20EDUCATIVO%20A%20DEBAT.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Otsoa, Nekane. (2013). Construimos una noria. *Aula de Innovación Educativa*. 226, 69-74.

Peña Calvo, J.V. (1989). *Modelo político-modelo educativo*. [Publikatu gabeko doktoretza tesia]. Oviedo, Facultad de filosofía y CC. de la Educación.

Reverte Bernabeu, J., Gallego, A. J., Molina-Carmona, R., eta Satorre Cuerda, R. (2007). *El aprendizaje basado en proyectos como modelo docente. Experiencia interdisciplinar y herramientas groupware*.
<https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/1808/1/Definitivo%20-%202007%20-%20JENUI%20-%20Teruel%20-%20ABP.pdf>

Rodríguez, I. R., eta Vílchez, J. G. (2015). El aprendizaje basado en proyectos: un constante desafío. *Innovación educativa*, 25, 219-234.
<https://revistas.usc.gal/index.php/ie/article/view/2304>

Rodriguez-Miñambres, P., López de Sosoaga, A., Goroztiza, A. I. eta Rico, A. (2017). *Eskola-gaitasunak eta euskal curriculumak lehen hezkuntza graduan. Proiektuen bidezko metodologia*. UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak.
<https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/eskola-gaitasunak-euskal-curriculumak-lehen-hezkuntza>

Rodríguez-Sandoval, E., Vargas-Solano, E.M., eta Luna Cortés, J. (2010). Evaluación de la estrategia "aprendizaje basado en proyectos". *Educación y educadores*, 13(1), 13-25

Sánchez, J. (2013). Qué dicen los estudios sobre el Aprendizaje Basado en Proyectos. *Actualidad pedagógica*.
https://www.estuaria.es/wp-content/uploads/2016/04/estudios_aprendizaje_basado_en_proyectos1.pdf

Tobón, S. (2006). *Método de trabajo por proyectos*. Uninet

Trilla, J., eta Novella Cámara, A. M. (2001). Educación y participación social de la infancia. *Revista Iberoamericana de Educación (OEI)*, 26,137-164.
<https://rieoei.org/historico/documentos/rie26a07.PDF>

Gradu Amaierako Lana.

Valero-García, M. (2005). Las dificultades que tienes cuando haces PBL. *La Educación Superior hacia la Convergencia Europea: Modelos basados en el aprendizaje*, 1-8. https://personals.ac.upc.edu/miguel/materiales/docencia/articulos/dificultades_PBL.pdf

Van Manen, M. (2004). El tono en la enseñanza. El lenguaje de la pedagogía. Editorial Paidós.

Wenger, E. eta Snyder, W. (2002). Communities of Practice: the new organizational frontier. *Harvard Business Review*, 1, 139-145

10.ERANSKINAK

1.Eranskina: Elkarrizketarako galderak

Proiektuen bidezko metodologiaren aplikazioa (Orokorrean...)

- Nola ulertzen duzue proiektu bidezko metodologia?

-Zergatik ikastetxean martxan jartzeko hautua? nola sortu zen metodologia hau erabiltzearen ideia?

Urratsak

-Zein urrats biltzen ditu proiektu bidezko metodologiak zuen kasuan? Nola da proiektu baten garapena?

Ikasleen parte hartzea

-Non kokatzen dira ikasleak? Proiektua zeren ingurukoa izango den nola erabakitzen da? zuek edo ikasleek? Taldeak zuek sortzen dituzue, edo ikasleek ?

-Ebaluazioa nolakoa izan ohi da? nola ebaluatzen dira ikasleak eta haiek ikasitakoa?

Oztopo eta zailtasunak

-Zein oztopo topatu dituzue proiektu bidezko metodologia praktikara eramateko garaian? Nola gainditu dituzue?

Abantailak

-Azkenik, Zein abantaila uste duzu egon daitekeela lan egiteko modu honetan? hau da, ikasketa prozesuan?

2.Eranskina: Elkarrizketak egiteko baimen dokumentua



Elkarrizketa hau ikerketa baten barnean kokatzen da. Lan honen asmoa Nevers ikastetxean erabiltzen den metodologiari buruzko gako esanguratsuak bildu eta horien inguruko hausnarketa bat sustatzea da. Gako horien artean, elkarrizketa honetan ikasleen parte-hartzean jarriko da arreta, eskolan balore hau nola artikulatzen den ulertzeko eta jasotzeko asmoz. Horretarako, bilera ikastetxeko ikasketa buruarekin egingo da.

Ikerketa honetan parte-hartzea guztiz boluntarioa da eta bertan jasotako datuak konfidentzialak dira. Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dugu erabiltzaileen datu pertsonalak izaera pertsonaleko fitxategi batean barneratu ahal izango ditugula. Erabiltzaileak aipatutako fitxategietan barneratua izatea onartzen du. Erabiltzaileen datuak ez dizkiegu hirugarrenei utziko haien baimenik gabe.

Horrez gain, parte-hartzaile izango bazara honako eskubideak dituzula jakinarazten dizugu:

- Parte-hartzea hautazkoa da eta edozein momentutan bota daiteke atzera parte izateko onarpena.
- Helarazitako informazioa erabiltzeko baimenari uko egin ahal izango diozu dokumentuan agertzen den pertsonarekin kontaktuan jarritz.
- Behin ikerketa amaituta, emaitzen inguruko informazio guztia eskura izango duzu, parte-hartzaileen konfidentzialtasuna mantenduz.

Zure ekarpena ikerketa lerro honen garapenean oso baliagarria zaigula gogorarazi nahi dizugu, eta horregatik honakoa onartzea eskertuko genizuke:

- Ikerketa honetan parte hartzea onartzen dut.
- Talde eztabaidan zehar ikus-entzunezko grabazioak egitea onartzen dut.

Izen-abizenak

Gradu Amaierako Lana.

Lekua eta data

Sinadura